

BALIABIDEEN
ETA ZERBITZUEN
GIDA
**EMAKUMEAREN
AURKAKO
INDARKERIA
ETA SEXU
ERASOAK**

www.berdintasunazarautz.blogspot.com



ZARAUTZKO *Udala*



Departamento de
igualdad

Subvenciona:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Tratu txarren edo genero-
indarkeriaren biktima bazara,
egoera horrekin bukatu!
Sexu-eraso baten biktima bazara,
lehenbailehen laguntza eskatu!

**Lagunduko dizuten zerbitzuak
eta profesionalak dituzu
horretarako eskura; horien
guztien berri duzu gida honetan.**

Tratu txarrek eta sexu-erasoek
kalte fisikoak eragiteaz gain,
kalte psikologiko larriak ere
eragiten dituzte; kalte horiek
batzuetan denbora luze irauten
dute eta, normalean, laguntza
espezializatua behar izaten da.

Baliabideak eta zerbitzuak

Zarauzko Udala:

Gizarte-zerbitzuak:

Tel.: **943 00 51 11**

Tel.: **943 00 51 27**

Parekidetasun saila:

Tel.: **943 00 51 17**

Helbidea:

Zigordia kalea, 33

Ordutegia:

8:30 -14:30

Informazioa, balorazioa,
aholkularitza eta laguntza.

Udaltzaingoa:

Tel.: **943 00 51 15**

Helbidea:

Gipuzkoa kalea 32

Ordutegia: Eguneko
24 orduak, urteko 365
egunetan.

Laguntza profesionala,
besteak beste, honakoe-
tan: larrialdiko, arriskuko
eta sexu-erasoko kasuetan.

Zarauzko Ertzaintzaren polizia-etxea:

Tel.: **943 53 89 00**

Helbidea:

Gipuzkoa kalea 46

Ordutegia: Eguneko
24 orduak, urteko 365
egunetan.

Harrera eta laguntza
larrialdiko egoeretan,
osasunerako arriskua da-
goenean, sexu-erasoak
gertatzen direnean, etab.
Salaketak eta babe-
serako eta urruntzeko
aginduak, etab.

Zarauzko anbulatorioa

Tel.: **943 00 79 99**

Helbidea:

Salbide kalea 10

Ordutegia: Eguneko
24 orduak, urteko 365
egunetan.

Osasun-laguntza espezia-
lizatua eta, hala badago-
kio, kasua beste zerbitzu
batera bideratzea.

Hospital Donostia

Tel.: **900 00 70 53** (Larrialdiak)

Tel.: **943 00 70 00** (Zentralita)

Helbidea:

Beguiristain Pasealekua

SOS Deiak

Tel.: **112**

Ordutegia: Eguneko
24 orduak, urteko 365
egunetan.

Harrera eta, egoeraren
arabera, kasua zerbitzu
egokienera bideratzea.

Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua

Tel.: **943 22 44 11**

Berehalako harrera eta
laguntza profesionala,
udaleko gizarte-zerbit-
zuen lan-orduz kanpo.

**Etxeko tratu txarren eta /
edo sexu-erasoen bikti-
ma diren emakumezkoen
laguntzeko telefono-
zerbitzua:**

Tel.: **900 840 111**

Doako zerbitzua eguneko
24 orduetan, urteko 365
egunetan. Laguntza pro-
fesionala telefono bidez.

Euskaraz, gaztelaniaz,
ingelesez, frantsesez,
errumanieraz, txineraz
eta arabieraz hitz egin
dezakezu.

**Tratu txarren biktimen
larrialdietako telefonoa:**

Tel.: **016**

Ordutegia: Eguneko
24 orduak, urteko 365
egunetan.

**Biktimari Laguntzeko
Zerbitzua**

Tel.: **900 100 928** (doan)
Tel.: **943 000 768**

Justizia Jauregia. Atotxa.

Helbidea: Kalkutako Tere-
sa plaza, 1
20012 DONOSTIA

Ordutegia:

Astelehenetik Ostiralera
08:30 - 15:00.

Astearte eta Asteazkenetan
16:30 - 19:00

Uztailean eta Abuztuan:
08:00 - 15:00

Informazioa eta doako
laguntza, delituren baten
biktima izan diren pertso-
na guztientzat. Laguntza,
aholkularitza juridikoa eta
orientazioa eskaintzen
duen zerbitzua.

**Biktimari Laguntzeko
Laguntza Juridikoa:**

Tel.: **652 77 90 43**

Etxeko indarkeriaren eta
sexu-erasoen biktimen-
tzako aholkularitza
juridiko espezializatua,
eguneko 24 orduetan.



LEHENBAILEHEN
ESKATU LAGUNTZA,
ZURE MESEDERAKO
IZANGO DA ETA!

INDARKERIA MOTAK

Hona hemen indarkeria-motak:

Tratu txar fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak, sexu-abusuak eta sexu-erasoak, sexu-jazarpena, emakumeen eta nesken trafikoa sexu-esplotaziorako edo eskean erabiltzeko.

Bai eta emakumearen duintasuna edo segurtasuna urratzen duen edo urra dezakeen edozein ekintza edo portaera ere.

Tratu txar fisikoa:

Bikotekideak, bikotekide ohiak, senideren batek edo zurekin batera bizi den norbaitek edo beste edonork, honakoak egiten badizkizu: bultzatu, zauritu, jo, erre, ileetatik tira egin...

Tratu txar psikologikoa:

Besteak beste: iraintzen, gutxiesten, makurrarazten, derrigortzen, mehatxatzen... bazaitu.

Harreman sozialak eta familia-harremanak izatea eragozten badizu, lagunekin kalera ateratzen zarenean, zure gutunak, deiak... kontrolatzen baditu.

Tratu txar ekonomikoa:

Besteak beste: dirua eskura izatea galarazten badizu edo zuk

egindako gastuen kon-tuak ematera behartzen bazaitu etengabe.

Diru-sarrerak ezkutatzen badizkizu eta zure edo seme-alaben ongizate fisikorako baliabideak kentzen badizkizu.

Sexu-indarkeria eta sexu-abusua:

Besteak beste: zuk nahi ez duzula, edozein sexu-harreman mota izatera behartzen bazaituzte.

Hauetariko edozer izan daiteke: exhibizionismoa, hitz lizunak, ukitzeak edo zirriak, sexu-jazarpena lantokian... Portaera-mota horretatik larriena bortxaketa da.

Zer egin dezakezu?

Zer egin tratu txarren biktima izan bazara?

● **Zarauzko Udaleko**

honako zerbitzuetara joan edo deitu:

- *Gizarte zerbitzuak*
- *Parekidetasun Saila*

● **Polizari** deitu edo bertara joan:

- *Ertzaintza*
- *Udaltzaingoa*

● **Lesio fisiko edo psi-**

kikoak badituzu, edo izan ditzakezula uste baduzu, joan zaitez:

- *Osasun Zentrora (Anbulatorioa)*
- *Donostiako ospitalea*

Azaldu zer gertatu zaizun eta eskatu erabateko mediku-azterketa egiteko.

Garrantzitsua: *Medikuak egindako txostenaren kopia bat eskatu, ahaztu gabe.*

● **Konfiantzazko lagun batengana** joan eta laguntzeko eskatu.

Arriskuan bazaude eta babesa behar baduzu:

Zure segurtasuna edo seme-alabena arriskuan badago:

Poliziarri deitu edo bertara joan: Ertzaintza, udaltzaingoa.

Egin ahalik eta zarata handiena, ireki ateak eta leihoak, laguntza eskatu...

Gorde erasoaren froga guztiak: apurtuta dauden gauzak, arropa hautsiak edo odoleztatuak, ez garbitu...

Joan zaitetz etxetik eta ez izan zure eskubideak galtzeko beldurrik. Dena den, komeni da etxea uzten duzuetik 30 egun pasatu aurretik, banantzeko eskakera aurkeztea edo salaketa jartzea tratu txarreatik.

Ez eman erasotzailea ohartarazi dezakeen argibiderik edo aztarnarik.

Nora joan ez baduzu, urgentziazko harrera emango dizute, bai zuri zein seme-alabei.

Etxetik joan baino lehen, ahal baduzu hartu honako gauza hauek:

- NAN eta familia-liburua
- Pasaporte eta / edo egoitza-baimena
- Gizarte Segurantzako liburuxka eta osasun-txartela
- Ziurtagiri medikuak eta ohiko sendagaiak
- Aurrezki-libreta edo kontu korrontea
- Kreditu-txartelak
- Etxearen errentamendu-kontratua edo jabetzako eskriturak
- Nominak, ordainagiriak, gastuen ordainagiriak...

Horiek hartzeko denborarik izan ez baduzu, eskatu polizia zurekin joateko etxera zure gauzak hartzeko.

Zer egin sexu-eraso baten biktima izan bazara?

● Deitu: 112 SOS Deiak.

● Deitu poliziarri edo bertara joan: Ertzaintza, udaltzaingoa.

Eskatu zu babesteko eta gertuen dagoen ospitalera edo osasun-zentrora joaten lagun diezazuten.

● Deitu edo bertara joan: Osasun zentroa (Ambulatorioa), Donostiako Ospitalea.

Garrantzitsua: Medikuak egindako txostenaren kopia bat eskatu.

● Udaleko Gizarte Zerbitzuei edo parekidetasun sailera deitu edo bertara joan zaitetz.

● Joan zaitetz konfiantzako pertsonaren batengana eta laguntza eska iezaiozu.

Garrantzitsua:

Ez zaitetz garbitu ezta arropaz aldatu ere. Aho bidezko erasorik jasan baduzu, ez ezazu jan ezta edan ere, erasotzailea identifikatzeko funtsezko frogak ezabatu ditzakezu eta.

Sexu-erasoek kalte fisikoa eragiteaz gain, kalte psikologiko larriak ere eragiten dituzte (barneherstura edo antsietatea, amesgaiztoak, depresioa, sexu-desira gutxitzea...).

Erasoa izan ondoren denbora luze irauten dute kalte horiek eta, norma-lean, laguntza psikologiko espezializatua behar izaten da.

Gogoan izan laguntza psikologiko hori doan jaso dezakezula, Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez.

Zuk ere eskubidea duzu

Atzerriko emakumeak

Eskubidea duzu zaindua izateko eta zerbitzu horien bidez laguntza jasotzeko, beste edozein emakumek bezala, edozein dela zure jatorria, arraza, erlijioa, gizarte-egoera eta egoera pertsonala.

Gogoan izan:

- Edozein dela zure egoera juridikoa (paperak izan edo ez izan), **eskubidea duzu**.
- Erroldatuta egon edo ez egon, **eskubidea duzu**.

Gaztelaniaz edo euskaraz komunikatzeko arazorik baduzu, joaten zaren zerbitzuan eska dezakezu zure hizkuntza hitz egiten duen interpretea.

Ezintasunak dituzten emakumeak

Ahoz komunikatzeko arazoren bat, ikusmeneko, entzumenerako, mugitzeko arazoak badituzu edo beste mota bateko ezintasunen bat baduzu, jakinarazi (telefonoz, faxez, mezu elektronikoz...).

Eska ezazu joan-etorrian norbaitek laguntzeko, zurekin batera joateko, zeinu-mintzairaren interpretea jartzeko, etab.

Komeni zaizu
salaketari buruz
honako hauek
jakitea:

**Edozein eraso-mota edo
tratu txar fisiko, psikologiko,
sexual sala dezakezu:**

Salaketa jar dezakezu:

- Edozein polizia-etxetan
- Epaitegian

Salaketa jartzera joaten
zarenean, saia zaitez kon-
fiantza duzun pertsonaren
batekin joaten.

Lagun zaitzakeen inor ez
baduzu, Udaleko Gizarte
Zerbitzuetan eska dezakezu
laguntzeko.

**Salaketa jartzea oso
garrantzitsua da; hona
hemen arrazoiak:**

- Epaileek eta poliziak
zu babesteko neurriak
abian jarri ahal izateko
eta erasotzailearen gai-
nean egon ahal izateko.
- Banantzeko epaiketa
edo prozesua abian
jarriz gero, tratu txarren
biktima izan zarela frogat-
tu ahal izateko.

EZ DA BEHARREZKOA SALAKETA JARTZEA TRATU TXARRAK JASAN DITUEN EMAKUME BATEK GIZARTE ZERBITZUEN LAGUNTZA IZATEKO ETA PRESTAZIOAK JASOTZEKO.

Salaketa jartzea erabaki baduzu, gogoan izan:

- 1 Eskatu** bertan izatea indarkeriaren biktima direnentzako ofiziozko txandako **abokatu bat**, behar bezalako aholkularitza izan dezazun (zerbitzu hori doan jasotzeko eskubi-dea duzu).
- 2 Ahalik eta xehetasun gehien eman** gertatu zaizunaz, bizi izandako indarkeria-egoerez, datak, bitxikeriak, lekukoak...
- 3 Eraman** itzazu jasota dituzun **froga guztiak**: apurtuta dauden gauzak, arropa hautsiak edo odolztatuak...

4 Azaldu beste noizbait tratu txarrak jasan duzun.

5 Lesiorik izan baduzu, eraman ezazu laguntza eskaini zizuten osasun-zentroko **medikuaren txostena**.

6 Babes Agindua eska dezakezu.

7 Salaketaren edukia irakurri eta egiaztatu, sinatu aurretik.

8 Polizia-etxean lagundu dizun pertsonaren **identifikazio-zenbakia** edo identifikazio-datuak eska itzazu.

9 Eska ezazu salaketaren **kopia** bat.

Babes agindua

Babes Agindua honako toki hauetan eska dezakezu:

- Ertzaintza edo Udaltzaingoa.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
- Epaitegia.
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua.

Horietako edozein tokitan emango dizute behar bezalako informazioa eta eskabide-orria eta, bete ondoren, epaitegira bidaliko dute ahalik eta lasterren.

Epaileak deklaratzera deituko dizu eta, hala bada-gokio, zure babeserako neurriak hartuko ditu; hona hemen babeserako **neurriak:**



- **Neurri penalak** eraso-tzaileren aurka: behin-behineko espetxea edo urruntzeko neurria, esaterako.

- **Neurri zibilak:** familiaren etxea erabiltzeko eta gozatzeko ematea, seme-alaba adingabeen zaintza eta babesa arautzea, elikagaien prestazioa ematea, etab.

- **Gizarte-babeseko neurriak:** larrialdiko ostatua, prestazio ekonomikoak, laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa.

Epaitegiak neurri hauei buruz erabaki behar du, gehienez ere 72 orduko epean.

